

CARITASEK ADIERAZI DU SUSPERKUNDE EKONOMIKOA EZ DELA PERTSONA GUZTIENGANA IRISTEN.

DESBERDINTASUNAK EUROPAKO BATEZ BESTEKOAREN GAINETIK JARRAITZEN DU,
ETA MILAKA PERTSONARI ERAGITEN DIE ARABAN.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko abenduaren 17a.

Urtero bezala, abenduan, urtea amaitzear dagoenean, Cáritas Gasteizek azken hamabi hilabeteetan egindako lanaren balorazio orokorra plazaratzen du. Gardentasun- eta erantzukizun-ariketa honek gizarteari kontuak emateko, egindako lanaren emaitza nagusiak partekatzeko eta datorren urterako jardun-ildoak aurreratzeko balio du, gure elizbarrutiko pertsona ahulenak laguntzen jarraitzeko helburuarekin.

Oraindik behin-behinekoak diren datuetatik eta egindako jardueraren lehen balorazioetatik abiatuta, Cáritasek kezkatzen gaituen errealitate bat baieztatzen du: adierazle makroekonomikoek bilakaera positiboa erakusten duten arren, **susperkunde ekonomikoa ez da pertsona guztiengana iristen**. Hazkundeak ez du desberdintasuna murrizten, **Europako batez bestekoaren gainetik jarraitzen baitu**, eta biztanleriaren zati esanguratsu bat bere onuretatik kanpo uzten du.

FOESSA Euskadi 2025 txostenaren arabera, gaur egun **84.000 pertsona daude bazterketa larriko egoeran Euskadin**. Datu horiek Arabara estrapolatuz, kalkulatzen da **gutxi gorabehera 12.600 pertsona bizi direla egoera horretan**. Zifra horien atzean prekaritate-egoerak, etxebizitza eskuratzeko zailtasunak, lan duinik ez izatea edo bizi-baldintza egokiak bermatzeko diru-sarrerarik ez izatea daude.

Cáritas Gasteizko zenbait datu

Azaroaren 30era arte, Cáritas Gasteizek **20.584 elkarrizketa egin ditu**, eta **3.422 familia-unitateri lagundu die** beren bizi-prozesuetan. Esku-hartze bulegoetan jasotako eskaera ohikoenak etxebizitzarekin lotuta egon dira —jabetza, alokairua eta hornidurak—, baita elikadura, arropa eta oinarritzko beste beharrian batzuekin ere.

Artatutako pertsonen profila aurreko urteetako joerari eusten dio: **pertsona migratzaileak eta emakumeak nagusitzen dira**. Emakumeak, batez ere, Hego Amerikatik datoz; gizonak, berriz, batez ere Ipar Afrikatik. Premia horiei erantzuteko, **laguntza ekonomikoetara bideratutako zenbatekoa 495.747,80 eurokoa izan da** azaroaren amaieran.

2025eko jarduera nabarmena: gizarteratze eta laneratzea

2025ean zehar, Cáritasek gizarteratze eta laneratze arloko lana indartu du, bereziki egoera administratibo irregularrak markatutako testuinguruetan. Laguntza jarraituari eta enpresek in egindako elkarlanari esker, **aurten 17 lan-txertatze lortu dira lan-errolatzearen bidez**, pertsona horiei beren egoera administratiboa erregularizatzeko eta lan duina eskuratzeko aukera emanez.

Era berean, **Arabako Merkataritza Ganberarekin batera garatutako proiektua sendotu da**, lan-merkatuan eskari handia duten profil profesionaletan prestakuntza eskaintzeko. Ekimen honek gizarteratze eta laneratze bide berriak ireki ditu, prestakuntza egokitua aukera errealak sortzeko tresna eraginkorra dela erakutsiz.

Gizarte Ekintzako Eredua

2025ean, barne-hausnarketa sakon baten ondoren eta plan estrategikoaren baitan, Cáritasek bere **Gizarte Ekintzako Eredua berrikusi du**. Erakundea ez da pobrezia kudeatzera mugatzen; sortzen duten baldintzak eraldatzea du helburu, pertsonen autonomia, integrazioa eta duintasuna sustatuz.

Eredu bizi eta dinamiko honek **giza duintasuna, justizia soziala, senidetasuna eta itxaropena** bezalako balioak ditu oinarri, eta komunitate harreragile eta konprometituen bidez garatzen da. Gaur egun, ia **600 boluntariok** sostengatzen dute gizarte-ekintza hau, programetan, proiektuetan eta prestakuntza-prozesuetan aktiboki parte hartuz.

2026rako lan-ildoak

2026ari begira, zuzendaritza-taldean izandako aldaketen testuinguruan —proiektuaren jarraipena bermatzen dutenak—, Cáritas Gasteizek **Vitoria-Gasteizen zein Arabako lurraldeko hainbat herritan** garatzen dituen programak eta zerbitzuak mantenduko ditu, egoera zaurgarrian dauden pertsona eta familiei laguntza ematen jarraituz.

Gabonetako Kanpaina 2025

Testuinguru honetan, Cáritasek **Gabonetako Kanpaina 2025** aurkezten du honako lelopean: **“Lor dezagun bizitza duina izatea zorte kontua ez izatea” / “Hagamos que tener una vida digna deje de ser cuestión de suerte”**.

Desberdintasun-egoeren aurrean inplikatzeko, partekatzeko eta erantzukizunak hartzeko gonbidapena da.

Duintasun pertsonala aurrerapen sozialaren lorpen handienetako bat da, eta pertsona oro da duina berez, bere egoerak gorabehera. Fatalismoaren aurrean, Cáritasek **itxaropen eraldatzailearen alde egiten du**, beti badagoelako zerbait gehiago egiteko aukera.

Keinu bakoitzak batzen du, eta pertsonak badauden bitartean, itxaropena badago.

Informazio gehiago: Mercedes Escribano Abad

945 23 28 50 – 688 71 37 27 comunicacion@caritasvitoria.org